

Axularren *Gero liburuaren ale kasi birjinaleko “M” pleguaz*

PATXI SALABERRI MUÑOA

O. Ez da irarkola-lana euskal letren esparruan sakonen jorratu den atala. Jakin, edonork daki haren premia dela liburuak argitaratu ahal izateko, baina nekez aurkituko da argitaletxeen esparruetatik at liburuen inprimatzetako tradizionalaren prozedurak kezkatzen duenik.

Gure literatura klasikoak ere, egia da, ez du arlo horretan kezkarik sortzen gehiegi lagundi, ez baita, hainbat arrazoi direla medio, ia inoren arreta era-kartzeko gai izan. Noiz eskuizkribuen edota informazio iturri zuzenen falta-gatik, noiz inprimatutako edizioetatik geratu izan zaizkigun aleen eskasiagatik (maiz asko ale bakarren bitartez burutu behar izan dira ikerketak eta azalpenak), kontua da, gure klasikoen idazlanen berri emateko orduan, inprentaren garaiko lanari dagokion guztia kanpoan uzten dela, hutsunea osatzeko erremediorik gabe.

Hori dela eta, ondoriozko azterketa-pobrezien panoramak bitxiago egin ohi ditu gai horiezaz, bakanka bederen, jaurtiki izan diren baieztapenak, hipotesi beharrean, erdi aieru bilakatu baitira gehienak ezinbestez.

Ausarten artean, J. Vinson izan da, guk dakigula, aitzindari eta, zuzenago edo zeharka, horretaz mintzo den serioenetakoa. Haren *Bibliographie* delakoa lekuko.

Geroztik, nonbait klasikoen argitalpenen deskribapenak baino larriagoak izan dira literaturak aurkitu dituen eginkizunak, eta esango genuke are gutxiago mintzatu garela edizioez berez eta haien inguruko arazo zehatzez, hala nola, argitaratuengen paper motaz, tipoez, karaktereet, zuzenketez, konpagina-zioaz... eta, oro har, tipografia eta inprenta lanei dagozkien guztieez.

Eta alor horretan agertu dena ere ez da Vinsonek esandakoetatik gehiegi urrundu.

Horrexegatik agian, eta gurearen abiapuntu bideratzaile gisa baino ez bada ere, paristar euskaltzalearen hitzak ekarri nahi genituzke hona.

1. Materrerren *Dotrina christiana* liburuaren 1623ko argitalpenaren kariaz, ondoko hipotesia planteatu zuen Vinsonek honako artikulu honen gai ere izango den edizioen arteko plegu inprimatuuen ustezko garraioa zela eta:

La p. 176 n'a que six lignes imprimées et tout le reste y est blanc. Un ancien propriétaire a écrit son nom dans cet espace blanc de la manière suivante: "Francis de Esparbem guataluna de Murguy. 1617". Cette date de 1617 est singulière, puisque le livre est de 1623. Serait-ce 1637? ou 1757 (akatsa dirudi, "1657" esan nahi zuela ematen baitu)? ou avons-nous à faire un exemplaire formé de deux autres dont l'un serait de la première édition? Si la date de 1617, pour cet *ex-libris*, est exacte et authentique, elle peut aussi s'expliquer d'une autre façon: elle prouverait en effet que l'édition de 1623 n'est pas à proprement parler une nouvelle édition, une réimpression de celle de 1617, mais que pour la faire on aurait repris les exemplaires restants de la première dont on aurait refait le titre et auxquels on aurait ajouté les p. 177 et suivants (Vinson 1891-1898: 1984, 52).

Materrerren horretan huts egin zuen arren (ikus gure "Materrerren 1623ko *Dotrina Christiana*"), egia da testu inprimatuuen garraioaren posibilitate erreala planteatu zuela lehendabizikoz frantsesak gure literaturak eman dituen argitalpenetan. Zehatzago esanez, galerada-proba hutsetarako inprimatutako orriak eta behin betiko ediziorakoak lasai asko enkoadernatu zitezkeela elkarrekin (posibilitatea beti posibilitate), baina, *de facto*, erabili ere, erabili egiten zirela ale berriak (salmentarakoak barne) apailatzeko. Eta horrela, erraz gerta zitekeela –segitzen zuen euskaltzale ospetsuak– garai edo xede desberdinak inprimaldietan burututako testuak liburu batean –berean– aurkitzea, katu beraren kume bailiran.

Vinsonek iradokitako bidea jorratuz, artikulu honek erakutsi nahi luke nola gauzatu izan zen aukera hori Materrerren autore garaikide eta ezagun batzen obraren ale baten baitan. Axularren *Gero* liburuak utzi duen lehen edizioko ale baztertuegi batez baliatu izan gara horretarako¹.

2. Lerroon muina behar bezala ulertu ahal izateko, tipografiari buruzko bizophiru ideia orokor bezain esanguratsu laburbildu nahi genituzke lehendabizi.

Inprintako ohiko prozesuak gorabehera, gogora dezagun ezer baino lehenago erliebean joan ohi direla inprimatzeko karaktereak; eta moldea *tipoek* eta grabatuek osatzen dutela. Testuen konposaketa eskuz egiten zenean –eta honako hau da guri oraingoan interesatzen zaigun kasua–, tipografoarenak ziren ardura eta lan nagusiak. Laguntzaileak zitzuzten, halere.

Honatx urratsak: inprimatu behar zen testu originala aurrean izanik, *tipoaak kutxatik* hartu eta *konposagailuan* kokatu ohi zituen, hitzen eta lerroen arteko tarteak behar bezala jartzen zituelarik. Behin orria osatzen zuten hizki eta lerro guztiak paraturik, *paketea* izenekoa prestatzen zuen lokarri batez lotuz. Esan bezala, laguntzaile edo *paketegile* bat baino gehiago egon ohi zen eta, lana burutzeko, elkarren artean banatzen zuten originala.

¹ Bihoazkie ene eskerrik beroenak ezinbesteko izan dudan *Gero* liburu honen mikrofitxak konsultatzeko egokiera eman didaten Koldo Mitxelena Kulturguneko arduradunei eta, halaber, eginkizun eskerga(be) horietan buru-bihorza uzteko prest egon ohi den UPV-EHUko Koldo Mitxelena liburutegiko Lourdes Saenz de Castillo lagunari.

Paketea proben pretsan kokatu ondoren, moldea tintaz igurtzitzea eta papera gainean jartza baino ez zen falta idazlanaren lehen impresioa ateratzeko. Lehen inprimaketa hura paperean itzuritako akatsez jabetzeko eta behin betiko testua behar bezala taxutzen erabili ohi zen. Izatez, zuzendu beharreko *galerada-proba* bezala eramatzen zitzakion testuaren egileari inprimatutako hura eta, jakina, eskuizkribua, gero hark edo zegokion zuzentziak paperezko lehen bertsio haren gainean zuzen zitzan akats-okerrokin.

Inoizka, halere, nonbait tipoetan geratzen zen tinta aprobetxatu nahirik edota, argitaratzeko presaren arabera, testu-orrazketa egiteko jende gehiago egon zitekeelako, ale bat baino gehiago inprimatzeko baliatzen zuten argitaratzaleek printzipioz proba hutserako zen behin-behineko inprimaldi hura.

Egile-zuzentzaile(ar)en zuzenketa haien *berunezko euskarrian* burutzen zi-tuen gero tipografoak. Horrela, ezin arreta handiagoz, eta pintza batzuk erabiliz, banan-banan ordeztu behar izaten ziren hizki eta hitz okerrak, eta behar bezala orekatu tarte-faltak, espazio zabalegiak, etab. Testuaren oreka ego-kia lortu ahal izateko, ohikoa zen hizkiak, hitzak, hitz multzoak edo lerro-zatiak ezker-eskuin mugitza, eta, beharrezkoa suertatuz gero, silaba edo hitzen bat lerroz aldatzea ere.

Pakete guztiak zuzendu ondoren, eta inprimatzeko makinetara igaro aurretik, konpaginazioa eta paketeak neurri bereko orritan uzteko doikuntzalana burutzen zen.

Inprimatutako orrien antolatzeak, joste-lanek, azal-jartzeek eta bestek ematen zioten gero amaiera formala liburuaren edizioari.

Zuzentzaileen ardurapean geratzen zen, azkenik, inprimatu eta liburu bihurtu ondoren atzemandako akatsen eta gabezien zuzenketak eskuz eta ale guztietan egiteko erantzukizuna.

Barka bekigu, arren, bereziki azpimarratzen badugu hemen probetarako erabiltzen zen orri-sorta inprimatuaren eta behin betiko edizioaren arteko desberdintasunaz ohartzeko premia, besteak beste, ohikoa baita –ironia gehiegirik gabe diogu hau– probetarako testuak behin betiko edizioak baino akats gehiago izatea. Ildo horretan, ahal izan denetan, *galerada-proben* eta lehen edizioaren arteko alderatzeak garbi utzi izan ditu tipografoak *berun hotzean* egindako zuzenketak eta baita haien *tamaina* ere.

Kaleratzen doan edizioan, beraz, desagerturik geratzen dira probetan atzemandako akatsak. Inprimatu ondoren –diogun berriro ere!– beti jazo ohi da aurretiaz antzeman ez eta, ondorioz, liburu bihurtu ondoren eskuz zuzendu beharrekorik.

3. Honaino iritsi den irakurlea azkarregi gogaitu ez dadin, aitor dezagun zertan datzan proben eta zuzenketen atalak bereizten ibiltzeko arrazoi nagusia edo, beste modu batez formulatua nahi bada, zertan datzan idazlan hau era-gin digun hipotesia.

Beherago zehaztuko den bezala, bada arrazoirk pentatzeko Axularren *Gero* liburuaren 1643ko ediziotik iritsi zaizkigun aleetatik bat bederen ez dela merkaturatutako beste guztiak bezalakoa eta baduela, halaber, *galerada-proben* esparrukotzat har litekeen atalik. Hala balitz, edizio-hibridazioak gure letretan orain arte utzi duen lehen alea izango genuke honako hau, garrantzitsua ez horrenbeste lehena delako eta bai, aldiz, horrek agerian uzten duenagatik.

Egun Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean aurkitzen diren bi aleetako bati buruz ari gara². Hondatuen dagoen alea da mintzagai duguna eta, nonbait horrexegatik hain zuzen, inoiz ez du arreta berezirik jaso, bestea bezalakoxea dirudiela eta, hobeto-edo dagoen alera jo izan baitute beti ikertzai-leek³.

J. Urkixoren liburu-bildumaren bitartez iritsia, lehen edizioko ale hau Pauen erosi omen zuen bibliofilo ezagunak eta 6513 zenbakirekin sailkatu bere katalogoan (Vinson 1891-1898: 1984, 84-85)⁴. Honela mintzo da hartaz:

Este segundo ejemplar lleva, a guisa de ex-libris, un escudo de armas, sin indicación de nombre de familia: y debajo del mismo sobresale una inscripción, o mejor dicho, el final de una inscripción. Lo que se lee es: “binprêtre”.

En vista de ello, para mí, no cabe duda de que el ejemplar en cuestión pretенeció al poeta vasco Robin (Vinson, págs. 22, 25 y 305). Robin era “vicaire à Saint-Jean-de-Luz en 1732”.

La particularidad de su ejemplar del *Guero* es que están tachadas en él algunas palabras usadas en los siglos pasados por diversos autores, y que hoy se sustituyen, generalmente, por eufemismos (Vinson 1891-1898: 1984, 85).

Ondoko urteetan gertatu legez, Urkixo ere ez zen jabetu esku artean zuen bitxikeriaz.

Gaizkiago kontserbatuta agertu arren⁵, aleak, halaxe da, guztiz normala dirudi, azaletik begiratuta behinik behin. Orrieta barrena formalki erakus-ten duen salbuespen ikusgarriena hirugarren bekatu kapitalarekin obsesio beretza zuen esku bati isuritakotik dator nagusiki, izan ere, *amurusa*, *amurusia*, *putanera*, *emaztetan anhitz usatceaz*, *emaztetaco indarra flacatu*, *emaccoiago* eta ildo horretako hitzak eta esapideak ezabatuta baitaude inolako gupidarik gabe. Halaz ere, begi bistán dago Axular baino beranduagokoa dela “zuzentzaile” setatsu haren intromisioa⁶.

Baina ez da hori ale bereziak islatzen duen guztia.

Aitorrta dugu ez zaigula jatorrizko bertsioa konsultatzeko aukerarik suertatu eta horrek nolabaiteko ondorioak izan ditzakeela hainbat arlotan. Mikrofitxa eta fotokopietan ezin atzeman daitezkeen ukitu eta zuzenketen nondik-norakoetan leudeke horietako nabarmenenak. Ezin jakin daiteke, kasurako, tinta berarekin eginak diren ala ez.

Nolanahi ere den, badira marka batzuk edizio *princeps* bezala ezagutzen dugun horretara iritsi ez direnak eta, horregatik ere, jasan zituen zentsura-parsateak bezain berantiarantz har daitezkeenak. Adibidez, hasierako orrialdeetan (“Gomendiozco carta” delakoan, etab.) aski sistematikoa da “i” bokala

² Signatura berdina ale biek: J.U. 3376 CF 85.

³ Ondo dagoen ale horretaz baliaturik prestatu zuen Urkixok RIEVeko edizio faksimil bukatu ga-bea (ikus aldizkari horretako ondoko tomoak: IV: 419-472 eta 517-572; V: 283-374; VI: 5-99, 334-384 eta 441-482; XI: 11-42; eta XXIV: 73-88). Jatorri bera du Euskaltzaundiak 1988an argitaratu edizioak ere.

⁴ Urkixoren oharrok J. Vinsonen *Bibliographie de la Langue Basque* delakoaren edizio berrian tar-tekatutik aurkitu ditzake irakurleak.

⁵ Alearen egoera tamalgarriak behartuta, konpontzeari ekin omen dio Donostiako Kulturguneak. Horrek berak eragotzi digu duela denbora asko eskuztatu genuen haren konsulta zuzena.

⁶ Sexuarekin hain tematia ez zen beste esku batek zuzenduko zituen gero, *in margine*, ezabatu haietako zenbait.

daramaten diptongo beheranzkoetan aipatu bokalaren gainean bigarren puntuoa eranstea: *maïtea, orhoïtçapen, haïn, Iaïncoac, conseilla*⁷. Aurrerago eta asistematikoago, ezin ahantz daiteke Axularrek berak ere horrela jokatu zuela zenbait kasutan, horietako azpimarragarrienak 172. orrialdean inprimatuta datozenak direlarik: “Baiña. aï. aï. ai, eta millatan aï”.

Bada, halaber, tintaz burututako bigarren marka-mota bat, lehen argital-penaren zuzentzaileei ezin egotz daki keena, hau da, testuan barrena hitzaren hasierako “i” delakoa maiz asko “j” bihurturik geratu da eskuz egindako marratxo baten bitartez (ikus, esaterako, 176. orrian *ioocoac, iocatceintu, iarri, iatea*).

Nonbait ildo bereko iruzkina luzatu beharko litzateke puntuazio-marka zenbaiti gagozkiolarik (horiek bezalakoak dira gaizki jarritako “z” edo “s” hizkien gainean eskuz egindako zuzenketak ere⁸). Baino berriro diogu: beranduago burutuak dirudite eta ez ditugu aintzat hartuko.

Orobat esan genezake aurkibidean aurkitzen diren zuzenketei dagokiez. Ildo horretatik, “Liburu hunetaco Capituluen contua” izenarekin hasten da paginazio zenbakirik gabeko aurkibidea eta, lehen begiradan atzeman daitekeen legez, kontu bategatik izango ez balitz, faksimilak duena bezalakoxea dela esan genezake. Hain zuzen, 1988 faksimilak errespetatu ez zuen “Rr” koadernotxoaren antolamendutik dator desberdintasuna, izan ere, aurkibidearen lehen orria 621. orrialdearen atzean egon beharko baitzuken eta ez faksimilean agertzen den letra gabekoaren ondoren.

Aukibideko gainontzeko ñabardurak ere –orain komentatzera goazenei horrela dei badakieke, bederen– eskuz egindako zuzenketetan dautza eta, aurrekoak bezalatsu, beranduago eginak dira. Mikrofitxetan igarri daitekeenaren arabera, pipiak edo bestek jan-zulatu-hautsitako orri-zatiak, bestaldetik eskuz idatzitako hainbat paper puskekin estali zirela ematen du. Paper horietan, gero, eskuz osatu zituzten falta ziren testu zatiak⁹ (IV. kapituluari dago-kion izenburuaren azken lerroko bi hitzak dira salbuespen bakarra), papera itsatsi zen aldean eskuz berreraikitako zatiak luzeagoak direlarik. Eranskin horien bestaldean eskuz idatzitako hizkiak eta hitz zatiak atzematen dira, guztiak gaztelaniaz: “*su [??] d...*”, “*Guarde*” (zenbatu gabeko 622 or.), “[...] *cho el que*”, “*G*” (z/g 624 or.), “*as las or[...]*”, “*M [...] San...*” (z/g 626 or.). Hizkien estiloagatik, liburuan barrena zentsura zuzentzen ibili zen eskutik ateratakoak izan litezke, akaso.

Gainerakoan, ez dago ale honetan besteetatik bereiz dezakeen alderik. Ez behintzat lehen begiradan, edizio bereko testuak arretaz erkatu gabe, ikus daitekeenik.

⁷ Beste Milanges baten ardurapeko (Jacques Millanges izenekoa honako hau) inprimategian argitaratu *Dotrina christiana* (1623) liburuan Materrek beste era batez darabil dieresia, ohiko poetikatan adierazten zuen esanahiarekin, alegia, (beste hizkuntzetan batik bat) diptongo goranzkooa osa lezakeen bokale elkarreta bat bitan ebakitzen zela jakinarazteko: *cerüetan çaudena* (78 or.), *manteniúa* (81 or.), *Ainguérüen* (257 or.), *errebelatiúa* (282 or.), *ceüen* (301 or.), *inguriúan* (332 or.)... Ez da sistematikoegia, edonola ere.

⁸ *Geroren* beste aleetan zuzenketa fin gertatzen direnak, honetan letrakera sendoago, ilunago eta desberdin batez burutuak agertzen dira; ez dirudite Milangeseneko zuzentzaile(ar)en eskutik aterreak.

⁹ Kapitulu zenbaiti dagozkien orri-zenbakiak ere eskuz zuzenduta edota osatuta agertzen dira.

4. Ordea, 1643ko aleen arteko alderatzetik ondoriozta daitekeenez, esku artean dugun liburuak badu nabarmendu beharreko ezaugarri garrantzitsurik.

Lehen ezaugarria, paradoxikoki, zuzenketarik gabeko testua izatean datta, testu zeharo *garbia* esango genuke, ondoren ikusiko den legez. Jakina, eskuze eta salmentara atera baino lehenago idatzitako zuzenketez ari gara.

Akatsak ohikoak dira liburuen edizio gehienetan, eta ohiko suertatu ziren Axularren lehendabiziko honetan ere, batzuk larriak, eta ez horren beste bestek. Arinak lirateke, esate baterako, ortografia hutsari dagozkionak¹⁰. Larrí samarrak, aldiz, kaleratutako beste aleetan ere zuzendu gabe geratuko ziren hainbat huts: “mortal” hitzaren ordez, *moltal* (254 or.) agertzea; “behar” hitzaren ordez *hebar* aurkitzea (335 eta 419 or.); “erabaquitceco”-ren ordez, *ebaraquitceco* (253), etab.

Baina, adierazi bezala, aski ohikoa zen horiek gertatzea eta ohikoa, halaber, horietako askotan inolako zuzenketarik ez egitea. Dagokigun ale honi ere ez zitzzion bat bera erantsi, nahiz eta horrelako zenbait zuzendurik kaleratu ziren gainontzeko franko ale¹¹.

Eta zer esan *Gero*-ren aleetan larri bezain ezagun diren hainbat testuakats, gabezia eta hutsuneez? Nola jokatu zen horiekin berezitzat dugun ale honetan?

Nabaria den bezala, ortodoxotzat ditugun aleetan faltan atzemandako hitzak eta pasarteak zegozkien orrialdeen ertzetan erantsi ziren gero, eskuze, merkaturatu aurretik¹². Horiek guztiak inprentak jarritako zuzentzaileek eginak dira eta bigarren edizioaren testuan barneraturik amaituko zuten¹³ gehienek. Begi bistakoa da sorta mardul samarra osatzen dutela (161, 248, 271, 441, 614 or., etab.), haietako batzuk zinez garrantzitsu direlarik hainbat pasarte behar bezala ulertu ahal izateko. Gogora bitez, esaterako, “*harri precia tuequin. Aditcera emaiteagatic*” (142 or.), “*beccatutan dagoenaren esperantça*” (450) eta beste zenbait.

Bitartean, baina, horrelako zuzenketa bat bera ere ez du aztergai dugun aleak, ezaugarri horrek *Geroren* ale honi egozten dizkion “inuzentzia” kutsu guztiarekin eta, azaletik behinik behin, susmo lausoaren inpresioarekin.

Testu neutro eta garbiko alea, beraz, patuak salbatu eta egunotara iritsarazitakoa.

¹⁰ Maizten azaltzen diren akatsak direla eta, beti pentsa liteke idazlearena zela “s” eta “z” hizkiak behar bezala ez bereizteko (eta ez idazteko) gabezia. Alabaina, bada jatorrizko testu luzeak inprenta-laguntzaileran batek ozenki irakurriaz konposatzen edota *berunean* zuzentzen zirela adierazten bide duen aztarnarik, eta ez testuak aurrean izanik, izan ere, tipografo zuzentzaile frantsesaren belarriarentzat bereiztezinak gertatu ohi ziren txistukarien esparrukoak baitira akats ohikoenak eta nabarmenenak: *aberratz* (160, 188, 221, 233...), *sinbets* (266, 269...), *butz* (188, 269...), *arratz* (169, 192...), *liquitz* (190, 191...), *azco* (156, 161, 162...), *cines* (15...), *sacrificios* (24...), *gutcas* (119), *uzte* (59...), *erdietz* (152...), *ceçaqueyens* (85), *heriotseco* (201), etab. Esan gabe doa merkatura atera behar ziren aleetan lumaz zuzentzen zirela haietako asko; beste asko, berriz, ukiturik izan gabe igaro ziren zuzentzaileen eskuetatik.

¹¹ Lehen edizioko ale guztien arteko alderaketa falta bada ere, zinez esan daiteke aski era sistemakoan zuzendu zirela gero bigarren edizioan zuzendurik agertu zirenak, hala nola, “198” -> 197 (197), “itzasoan” -> *itsasoan* (197), “Errietatsuen” -> *erriertatsuen* (270), “hominibus” -> *seminibus* (271), “Hari” -> *Harri* (290), “hatz beherapen” -> *hats beherapen* (329), “hatz” -> *hats* (196, 489), “beça” -> *beçala* (531), etab.

¹² Zuzenketarik gabekoa da, halaber, Gasteizko Eusko Legebiltzarrean gordetzen den alea.

¹³ *Geroren* 1988ko faksimilean azaldu arren, hainbat ohar ez dira 1643ko zuzentzaileek eginak, beranduagokoak baizik (ikus, adibidez, faksimilaren 27-34 orrialdeen ertzetan eskuz idatzita agertzen direnak). Guk hemen ez ditugu aintzat hartu.

Baina horrekin batera, badu ale honek beste ezaugarri azpimarragaririk, hots, “M plegua” izendatu dugunak ematen diona eta liburua benetako harribitxi egiten duena.

5. Labur adierazita, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturguneko ale honek dituen ezaugarri eta balio nagusiak (eta misterio-akuilatzailea, erantsiko genuke) bertan azaltzen diren zenbait akatsetan dautza, akatsok, hain zuzen ere, ale horretan bakarrik agertzen baitira. Alegia, *princeps*ztat daukagun argital-penean zuzenduta aurkitzen dira ale horrek zuzendu gabe dituen hogeい bat oker grafiko eta tipografiko (hizkiak, hitzen arteko espazio ezak, etab.)¹⁴.

Horrela, guztiok erabili ohi dugun edizio kanonikoan (1988an kaleratu faksimila da eredu horren argitalpen eskuragarriena) ez da akatson aztarnari, inprimatutako akats haien ondoko zuzenketok *berunean* burutu baitziren, inprimatzeko plantxetan.

Ale berezi honetan, beraz, bi inprimaldi desberdinako materiala elkartzen da: galerada-proba gisara edo¹⁵ buruturiko liburu-zatia, alde batetik, eta behin betiko lehen edizioari dagokiona, bestetik.

Eta “liburu-zati” diogunean, akats guztiok liburuaren toki zehatz batean biltzen direla ulertarazi nahi dugu, hau da, 169. orrialdean hasi eta 181. orrialdean amaitzen den orri-kopuruan.

Are gehiago: orain arte aurreratu ez badugu ere, kausalitate-hariaren astalkatzeak harantzago eraman gaitzake berehala, orrialde horiek koadernotxo bakar baten zati direla ohartzera, besteak beste.

Gero liburua bezala, “In-8º” modura argitaratutako obra osatzen zuten koadernotxoak hamasei orrialdez osatu ohi ziren eta, ezaguna da, alde bietaiko bakoitzean zortzina orrialde eman zitzakeen plegu baten tolestatzearren eta orri bihurtzearen ondorio ziren. Inprimatze orduan, pleguak alfabetoko hizki batez (edo biz, alfabetoko letra guztiak amaitzean) markatu ohi ziren alde batetik, pleguaren eskuinaldeko beheko ertzetik hurbil, lehen orrialde izango zen hartan, gero liburu bilakatzean, koadernotxoen ondozkapena egokiro egin ahal izateko. Aldi berean, behin enkoadernatutakoan, kaiera bakoitzaren ezaugarri bihurtzen z(ir)en hizkia(k).

Esku artean dugun aleari gagozkiolarik, aitortu behar da akatsen koadernotxoa “M” letrak identifikatzen duela eta hasi, 169. orrialdean hasten dela eta 184.ean amaitzen. Eta, adierazi bezala, bertan pilatzen dira geroagoko *princeps* ediziorako *berun-euskarrian* zuzenduko ziren akats guztiak.

Akatsak, xeheago esateko, honoko zortzi orrialdeotan baino ez dira azal-tzen: 169, 172, 173, 176, 177, 180, 181 eta 184. orrialdeetan, hain preseski.

Ea zergatik agertzen diren akatsok orrialde horietan eta ez besteetan litzateke planteatzen den bigarren galdera (lehendabizikoa, nahiz eta momen-tuz ihardespenik gabea, ea zergatik plegu honetan bakarrik bailitzateke).

¹⁴ Plegu honetan zein besteetan akats gehiago dagoen arren, korrejitu gabe geratu ziren ale guz-tietan (adibide nabarmen bat artikulu honetako 18. oharrean).

¹⁵ Galerada-probei zegozkien orriak izan zitezkeela esatean, ez da inolaz ere baztertu nahi bestela-ko hipotesirik, hots, orrialdeen iturburua galerada-proben ondoko behin betiko izan asmo zuen edizio akastuna gerta zitekeela proposatzen duena, etab. (ikus artikulu honen 7. atala).

Erantzuna aski erraza da pleguaren inprimatze-antolamenduari erreparatu gero, izan ere, gero kaieratxoa izango zenaren orrialde horiek guztiak pleguaren alde oso bat –barka bekigu erredundantzia– osatzen baitzuten. Bistan da, inprimatzerakoan, pleguaren beste aldean “M” koadernotxoari dagozkion beste orrialdeak zeudela, hots, liburuaren 170, 171, 174, 175, 178, 179, 182, 182 eta 183 orri-zenbakia daramatenak.

Laburbilduz, bada, bi puntu azpimarragarri: bat, koaderno bilakaturik geratu zaigun “M” plegu berezi honen alde batean bakarrik zeuden aka-tsok; eta bi, *berunezko euskarrietan* behar beste doikuntza tipografiko egin ondoren, zuzendurik geratu ziren *Geroren* lehen argitalpentzat hartzen den 1643koan.

6. Aurreratu legez, hogei bat dira, oro har, hona ekarritako alearen “M” plegu-kaieraren eta lehen edizio kanonikotzat dugunaren artean aurkitzen diren desberdintasunak. Ikus daitekeen bezala, garbiak dira guztiak¹⁶ eta tipografoen parte hartze zuzena behar izan zuten zuzenketak berunezko euskarrietan burutu ahal izateko. Hona hemen:

Orri-lerroa ¹⁷	M plegua	Princeps edizioa
169, 23	<i>ezcuey</i> (Hizki-zuzenketa hutsa. “M” pleguan, “z”-ri “s” bat gainjari zaio eskuz).	<i>escuey</i>
172, 2	<i>othelerau-</i> (<i>othe</i> delakoa eskuinerantz eramanetz lortu da hitzak bereiztea).	<i>othe lerau-</i>
172, 3	<i>Segurda</i> (Hitzok bereizteko, aditz laguntzailea eta hurren datorren “ <i>pintatçailleari</i> ,” ere eskuinerantz mugitu izan dira).	<i>Segur da</i>
172, 14	<i>fruituctaric</i> (Hizki-zuzenketa hutsa).	<i>fruituetaric</i>
172, 14	<i>dastadeçan</i> (Hitzok bereizteko, aditz nagusia eta aurreko <i>fruituetaric</i> zuzendua ere ezkerralderantz eraman izan dira).	<i>dasta deçan</i>

¹⁶ Eranskinetan atzeman daitekeen legez, ez dira gogoan hartu zalantza bat baino gehiago sorrazten dutenak. Adibidez, lehen edizioaren 7. orrialdeko 6. lerroko *guztiac* delakoa ez dago argiegi *guztie-tzat* hartu behar den.

¹⁷ Lerroei dagozkien ondozkatze-zenbakiak lerro errealen arabera finkatu dira, atal-buruak eta tarreak aintzat hartu gabe.

172, 15	<i>Etaiondonc Pauloc</i> (Hizki-zuzenketa hutsa).	<i>Etaiondone Pauloc</i>
173, 5	<i>bihia</i> (Zuzenketaz gainera, hitzaren lehen hizki biak eta aurretik doan komatxoa eskuinerantz eraman izan dira).	<i>bilha</i>
173, 6	<i>era main-</i> (Zati bien arteko lotura egiteko, <i>m</i> hizkia zabaldu eta ezkerantz eraman izan da).	<i>eramain-</i>
173, 11	<i>ioaitendu,</i> (Lehen hitza ezkerrerantz mugitu da, aditz laguntzailea eskuinalderanz eta komatxoa -testukoa ote?- ezabatu).	<i>ioaiten du</i>
173, 12	<i>biltcintu</i> (Falta zen bokala tartekatu ahal izateko, eskuinalderantz mugitu dira ondoko hizkiak).	<i>biltceintu</i>
173, 13	(Gaizki irudikatutako koma baten zuzenketa dirudi lerro horretako lehen komatxoak; oso antzekoa –nahiz eta zuzendu gabe utzia– da 181. orrialdeko 18. lerrokoa ere).	
173, 16	<i>ata</i> (Hizki-zuzenketa hutsa).	<i>eta</i>
173, 22	<i>etagazteac</i> (Tarteak behar bezala lortzeko ia lerroaren hasieratik burutu izan da ezkerrantzen desplazamendua, hots, “ <i>sendo naiz, gazte naiz, eta</i> ” zatiari dagokiona, hain zuzen).	<i>eta gazteac</i>
176, 10	<i>peril handian iarri nahi du</i> (<i>nahi</i> hitza ezkerrerantz mugituz lortu da tarteak)	<i>peril handian iarrinahi du</i>
176, 27	<i>ezguc</i> (<i>guc</i> eskuinerantz mugituz atera da tarteak).	<i>ez guc</i>
177, 8	<i>iaanen</i> (Hizki-zuzenketa hutsa).	<i>içanen</i>
177, 10	<i>ssegatu</i> (Hizki-zuzenketa hutsa).	<i>sosegatu</i>

180, 26

<i>belhanac</i>	<i>belhaunac</i>
(u bokala tartekatu ahal izateko, zertxobait mugitu da eskuinalderantz n hizkia eta ezkerrerantz aurreko <i>belha</i> zatia).	

181, 1-2

<i>qui baititeque. Eta halatan hartaraz guero,/ bere naturaleçac berac hala eracutsiric çuhaitz/ en contra [...]</i>	<i>qui baititeque. Eta halatan hartaraz guero, be-/ re naturaleçac berac hala eracutsiric çuhaitz-/ en contra [...]</i>
--	---

(Pasarte honetan ematen da aldaketarik nabarmenena, tareek orekatzeko premia dela eta, bigarren lerrotik lehenera igotzen baita hitz baten hasierako silaba).

181, 6

<i>edireitenda ,</i>	<i>edireiten da,</i>
(Komaren ezkerretara zegoen tarte zabalaz baliaturik, laguntzailea eskuinerantz mugituz bereizi dira hitzok).	

181, 21

<i>çnc</i>	<i>çuc</i>
(Hizki-zuzenketa hutsa).	

184, 8¹⁸

<i>egniten</i>	<i>eguisten</i>
(Hizki-zuzenketa hutsa).	

7. Tamalez, erkaketa-jolasetatik landa, ilun geratzen dira oraingoz liburuak planteatzen dituen gainontzeko auziak. Nekez jakin daiteke, esaterako, idazle-zuzentzaileek erabili galerada-proben testuak "M" plegua delakoaren behin-behineko inprimaldi berekoak ote ziren¹⁹. Nekez jakin daiteke zein izan zen zuzendu gabeko plegua liburutxo honetan paratzeko arrazoia. Nekez jakin daiteke, halaber, alea makularik gabe uztekoa.

Guztiarekin, funtsezko erantzun-ildoren bat iradokitze aldera, zinez mahaira daiteke liburuak inprintako zuzentzaileen eskuzko orrazketarik ez iza-teak "M" plegu berezia alean txertatuta egotearekin izan dezakeen loturarena. Izan ere, lehen begiradan balirudike alea paratu zuenak bazekiela, jakin, zernolako alea zuen esku artean, eta horren arabera jokatu zuela.

Esan gabe doa akatsak biltzen dituen orri-sortaren libururatzea, nonbait, aldez aurretik inprimatuta zegoen materiala aprobetxatzeko ahalegin gisa har litekeela (inoren edota inon zegokeen irrika asetzeko, edo nahi denerako), baina ez

¹⁸ XIV. Kapituluari dagokion izenburuan bertan egiten da orrialde honetako zuzenketa bakarra. Egon, dena den, bazegoen beste hainbat akats zuzendu beharra zutenak, larriena bosgarren lerroko *Leaincoa* delarik. Baino beste batzuekin gertatu bezala, honako hauek ere bere hartan geratu ziren.

¹⁹ Behin eskuzko zuzenketa-markak testuan egin eta *berunera* eraman ondoren, galeradak hautsi egin ohi ziren (hori baitzen, eta baita, proben bide-amaiera); plegu-kaiera berezi honen kasuan, berriz, liburu formatua hartu zuen ale batera *igaro* zela ematen du.

dirudi horrek plegu bereziko alearen existentzia zuritzeko azalpen bakarra²⁰ eta ez, ezinbestean, egokiena²¹.

Antza denez, zerbaitetarako prestatu zen dagokigu alea. Litezkeen aukerak, noski, anitz dira, eta ez dugu uste guztien zerrenda zehazten aritzeak benetako zioa, beste gabe, argitu lezakeenik.

Nolanahi ere den, dugun adibide bakana dugula, eta harik eta bestelakoak ezetsi eta baztertu arte, arrazoizko-edo dirudi pentsatzeak inprimatzailak ez zuela ale hori merkaturatzeko atondu, nahiz eta, jakina da, Jainkoarenak bezala, asko bezain ezezagun ohi diren irarkoletako sotoetan usteltzen geratu gabe, liburuek merkatura edota partikular baten eskuetara iristeko erabiltzen dituzten bideak.

Halabeharrez, bada, irekita geratzen da liburu kasi birjinal honi buruzko aieru eta hipotesien kapitulua.

BIBLIOGRAFIA

- AXULAR, 1643, *Gero*, G. Milanges, Bordele (Donostiako Koldo Mitxelena Kulturguneko ale bien signatura: J.U. 3376 CF 85)²².
- AXULAR, 1643, *Gero*, G. Milanges, Bordele (Faksimil edizioa: Euskaltzaindia, Bilbo, 1988).
- GASKELL, Ph., 1998, *Nueva introducción a la bibliografía material*, Gijón.
- MATERRE, E., 1623, *DOTRINA CHRISTIANA*, J. MILLANGES, BORDELE.
- MICHEL, F., 1857: 1983, *Le Pays Basque. Sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, Zarautz.
- SALABERRI, P., prentsan, “Materreren 1623ko *Dotrina christiana*”.
- VINSON, J., 1891-1898: 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (Volumenes I y II)*, Donostia (1891eko *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* eta 1898ko *Complément et Supplément* liburuen edizio bateratua, eta J. Urkixoren oharrez hornitua).
- XAGO, A., 1836, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, orain in RIEV 20 (105-127, 182-206, 350-377 eta 466-493) eta 21 (98-152).

²⁰ Erakargarria da *Gero* liburuaren 1643koa baino lehenagoko edizioaren hipotesia. Alabaina, idazlanaren onespain-idazkien data dela eta, kronologiarri aihera ez litzaioteko arrazoibidea aurkeztu beharko litzateke lehendabizi. Edozein modutan ere, gogora bedi 1640ko edizio batez hitz egin zuela materia bibliografikoan zehatzegia ez zen A. Xaho zuberotarrak (*Voyage en Navarre...* ik. RIEV 21, 106 or.), eta ildo beretik abiatu zirela M. Larramendi (“que tous les Bibliographes on suivi”, Vinson 1891-1898: 1984, 87) eta Francisque Michel bera ere, 1642an argitaratu edizio batez mintzatu baitziren biak, hain zuzen ere, “la seul qui existe, est, comme nous l'avons dit, défectueuse et remplie de fautes”, Michelen hitzetan (1857: 1983, 474). Akatsen ezaugarriak gure pleguaren izaerarekin bat egingo lukeen arren, Michelek ematen dituen bibliografi erreferentziak ia guztia egin bigarren ediziotsat dugun *Gerori* bide dagozkio. Eta “ia guztiak” diogu, zeren eta, gauzak ilunagotzeko, 1642ko dataz gainera, beste inon agertzen ez den hitz bat ere tartekatzen baitu obraren erreferentzia ematean: “Bordelen, *equina* G. Milanges, Erregueren imprimatçaillea, baithan 1642” (gurea da hitza nabarmentzeko erabilitako letrakera etzana). Akatsa berau ere? Ezin ahantz daiteke gainerakoetan aski zuzen jokatzen duela Michelek, esate baterako, ohar beraren amaieran, lehen ediziotsat dugun liburuaren erreferentzia ematen duenean.

²¹ Desberdintasun horien arrazoia inprimatze-probak egiteko moduan ere egon liteke. Gaskellek dioen bezala (1998, 442), “las pruebas se leían y se corregían en la imprenta cuando estaba a punto de comenzar la tirada. De hecho, en 1600, en las imprentas inglesas, podían hacerse lecturas posteriores una vez puesta en marcha la tirada, tomando uno de los primeros pliegos y leyéndolo (sin recurrir al original) a la vez que proseguía la impresión; después se paraba la prensa y se corregían los tipos; como consecuencia de ello, los ejemplares del libro contenían pliegos impresos con formas en diferentes estados de revisión”.

²² Urkixok lehenetsitako aleak 1 zenbakia du haren liburu-bilduman; hemen erabili denak, berriz, 6513 zenbakia. Lehena izan zen Euskaltzaindiak 1988an faksimil gisa argitaratu zuena (ikus 3. oharra).

ERANSKINAK

"M" kaieraren plegu berezia osatzen duten orrialdeak

DÉMBORAREN GALTCEAZ 169

tuçú, eta halatan erremediatzen eta estaltzen
ceure leheneco falta eta alferqueria. Bada
molde hunefan beraean gueure dem-
bora, hunerainocoan alferquerian eta gaix-
taquerian gaizqui emplegatu duguna, orai
ontasunean doblatzetan eta laster eguiñez behar
dugu coberatu, eta erdietsi. Hala erraiten
da, ardiac ere, arrats aldean, fitetz ago janez
bere goizeco gutijana, erdietsen duela. Ha-
lutan mahastiaren jabeac ere, arrats aldean
trabaillatzen hasi cirenay eman erauen
hanbat jornal, eta alocairu, nola goizetic
trabaillatu cirenay. Ceten arrats aldean
hasi cirenac, hain cinez eta gogotic hariçan
ciren, non hec de ni ora gutiz, bertcecanhitz-
ez beçanbat eguiñaz baitzuten.

Bada haur beror eguin behar dugu gueure,
orai arrats aldeon, çahartceon, gueure egui-
non accabatceon. Orai baitacuлагu ezen ja-
adinaren arauaz, heriotceco portura hurbilt-
zen garela, hemengoaz, eguiñaz hurran du-
gula. Orai bada orai behar dugu permatu;
orai behar derauegu, escuey etraguin. Orai
nori bera errenda, orai etxagoatic iltqui.
Orai ethorqui çunean pensa. Orai ein cinez,
bihorzezco vrriquimendu batequin, eta gue-
hiago, ez eguiteco vorondatearequin, aitci-
netic concientzia ongi iratioric, eta exami-
naturic, osoqui, eta eguiazqui cofella: co-
fessatu ondoan, leheneco occasinoetaric

M

172 GAZTETIC ÇAHARTCERA

latua : imagina harc, baldin eçagutçaric balu, nori lehenic behatu behar othelerau-caio? Segurda pintatçailleari, berari, bere eguilleari. Beraz hunelatan guiçonac ere, Jaincoac berac bere imaginara, eta idurira, hain ederqui eguna denaz gueroz, adimendura heltcen den beçain fite, bere eguilleari berari, iduria eman dioenari, behar dio behatu, haren cerbitçuan behar du bere ahala emplegatu. Hunen arauaz erraiten du. Ion-

b. ad Thib. 2. done Pauloc. *Laborarem agricolam, opporet primum, de fructibus accipere.* Ar-
raçoin da, trabaillatcen den laborariac, be-
rac lehenic bere fruitutaric daftadeçan.

.Corin.3. Eta Jondonc Pauloc berac dioen beçala. *Si agricultura estis.* Quęc çarete, eta gu gara, Jaincoaren laboçaritasuna: gu gara, Jainco-
aren lur-landua, appaindua eta trabaillatua. Arraçoin içanen da beraz halaber, Jaincoac berac, laborari onac beçala, bere trabaillua, lehenic goça deçan: eta adi-
mendura edo endel gamendura heltcen ga-
ren pontu beretic, gure obren primicia: eta
leheña dafta deçan.

Baiña, aï. aï. ai, eta millatan aï! Non da
bere lehen fruitutic, bere obren hastetic,
Jaincoari dafta aracitcen deraucanic? Non
da guristino goiz-tiarriic? Goiz ontcen de-
nic? Gazte danic. Jaincoa cerbitçatcen dre-
nic? *Vae mihi quia factus sum sicut quis co-*

PENITENCIA LVÇATCEN DVENAZ 173

liger, in autumno racemos vindimia, non est botrus ad comedendum. Ai ene vrrical- Mich. 7.
quiçuna (dio Miqueas Prophetac)ceren ni
eguin naiz vdaren finean, bertceren bil on-
doan mahats hondar-mondarren, bi.hiada-
billana beçala. Hoberenac bertcec era main-
tu. Ezterautate morcorta bat ere, eta ez bic-
cor bat, ahoan eman ahal ditequeyenic vtci.
Bada haur beror erran ahaldeçaque gure Ja-
ungoicoac ere. Ceren gure gaztetasuna bert-
cec joaitendu, Lehenbicico obrac bertcec
biltcintu. Deus guelditcen baçaica ere,
bil ondoac, hondarrac, çahartcecoac, guel-
dit cen caitça. Eta gaix. oeneco contuan, ail-
lequitça hec ere,edo hec bedere gueldi.

§. I.

Badirudi ecen desohore ata laido cayela
Boraico presuna gaztey prestuqui bicit-
cea, eta beccaturic eguin gabe egoitea. Bere
eguin bidea, Jaincoari çor dioten cerbitçua,
gueroco, çahartceco ordenatcen dute, errai-
ten dutela. Berdin oraino ezta hiltceco peri-
lic, sendo naiz, gazte naiz, etagazteac gazte
antçu, gazte beçala behar du bici eta gouer-
natu. Çer lerraque munduac berac ere,
baldin orai danic parti banenguio? Hor
helduda çahartasuna, dembora pausatua,
vimoa, erho querien vtcoa. Orduan bai,

M 3

176 GAZTETIC ÇAHARTCERA,

cabatce hartan, baitago, seculacotz ongi
edo gaizqui içaiteco pontua, eta gora behe-
rà : halatan Deabruac ere accabatce hartan,
escuey eraguiten deraue : orduan bere artea,
antcea, mañia, eta ahal guztia emplegatzen
du : orduan çacucoac atheratceintu, da-
quizquierjoeoac, jocatceintu : eta icussiric
dembora guti duela, tentatceco, guti hari
ahal daguien guztia, valia aracitzen derauca.
Beraz hunelatan, peril handian jarri nahidu,
çahartceraifio beccatutan egon gogo due-
nac. Ceren arraçoifi haur ere eman deçadan,
cer içanenda, anhitzi guerthatzen çaicana,
çahartu vstea, çahartu gabe, bere adinik hobe-
zenean hil badadi ? Eta hala hil ezpadadi
ere, cer ahal daidiique, çahartcean, adin flaco
hartan ? Eta orduco ongi eguitea, cer ualia
ahal daquidicayo ? Ici garrida san Basilioe
poniu hunen gaiñean erraiten duena. *Tempe-
rantia in senecta non est temperantia, sed potius in-
continentia quadam impotencia.* Çahartasuneco
pairua eta pairatcea, ecina da, era ez pairua,
eta ez pairatcea : indarraren escastea da, aha-
laren faltatcea, ecin egunez egoitea : dor-
chaz guelditcea : adinac vkhō eguitea :
eguin nahia enecin eguna : beccatuac berac
aitcintcea : ezung beccatuuen, bainha becca-
tuec gure vtztea. Eritasunean guti jatea, ezta
guti jate : orduco barurtcea ezta barurtce,
ceren baliz appeturic, bida vorondate. Ha-

afil. orac-
one 4. de
cenitent,

PENITENCIA LVÇATCEN DVENAZ. 177

Ia da bada comunzqui çahartceco pairamen-
dua , beguira mendua , eta beccatuetaric ba-
rurtcea ere : ecinezcoa da, eta ez voronda-
tezcoa. Hunen arauaz erraiten du san Cri-
sostomoc ere. *Qui modestus est in senectute, cum
atate plurimum jubetur, non magnam sua modestia
mercedem arbiter habetur.* Eztut vste pre-
funa çaharrac , probetchu anhitz iaanen due-
la,bere çahartcean, onhest, modest, pausatu,
eta lesegatu içaiteaz : ceren adina bera har-
tara laguntcen baitçaina, adinac berac har-
taratcen baitu, nahi ago badu ere ecin baitai-
dique bertcela. Cer esquer vste duçu iça-
nen duela , edo irabaci egunen duela çahar
ecinduac etsaiari bidera harmaturic ez il-
quitceaz ? Arratsean etcherat goiz viltceaz,
eta bihurtceaz ? Amorantiara gáztean be-
çala ez joaiteaz ? Dantçan eta jaucian ez
ibiltceaz ? Pontu hunen gaiñeanere , hertce
guztietan beçala ~~ederqui~~ erraiten du san
Agustinec. *Sed quidam sunt fratres mei, qui in
juventute sua luxuriosé viuere volunt, & si ad se-
nectutem peruererint gloriantur dicentes se conti-
nentes esse: tunc enim eligunt seruire castitati, quan-
do libido eos seruos habere contemnit. Nunquid ta-
les continentis dicendi sunt ? Absit. Tales enim
primum non habebunt, quia laboris certamen non
babuerunt. Batçuec nahi dute, bere gaztedem-
koran bici bere gogara, anhitz beccan , eta
defordenu , guztiç ere emazteequin eguiten*

Chrysost.
Hom 50.i
cap 24.
Matth.
T.2.

August. a
fratres me-
rem scrip-
6. Tom. 5.

180 GAZTETIC ÇAHARTCERA

ere eman agoá çarenean, ceure burua penatu. co duçunz. Ea orduan leheneco aztura çahar gaixtoac vtciric , aztura berri on batçuc hartuco ditu çuntz. Eztaquit, nic duda eguiten dut. Eta norc eztu duda eguinene? Cerea Sendoac jasaiten eztuena , flacoac nola manajatuco du? Baldin bacinitu bi abre , eta bi carga , ezliçateque erhoqueria , cargariç pisuena abreric flacoenari emaitea? Hala eguiten du bada, penitenciaren carga çahartcerat egotzten duenac. Gaztetasuna sendo da, indartsu da , ongi eguiteco, trabaillatceco, eta Jaincoaren cerbitçuan emplegatceco gai da. Baiña çahartcea flaco da , oñ behar da, berac du bere buruarequin, eta bere buruaren sostengatcen eguitecoric asco, Çaharra ecin barur diteque , belhaurico oracinotan ecin dagoque: erromerian ecin dabilque. Finean çaharrac , bere çahartasuneco eritasunequin eta arraçadurequin , penitenciazco obrariç ecin dàidique. Nola içanen da bada orduan, bere egun bidearen eguiteco on , eta gaiz

Guti da çahartcean , gaztean baiño çalhui ago , arin ago , eta jauzcalari handi ago.

Elefantac (aniamalia handibat baita) bere gazte demboran belhanac , eta gainferaco bertce junturac çalhuitu, erraxqui doblatcen, eta plegatcentu: baiña çahartcean gogortcen eta osatcen çaitça , halaco moldez , non baldin orduan eror , edo erçan badadi , ecin ja-

PENITENTIA LVÇATCEN DVENAZ. 181

qui baititeque. Eta halatan hartaraz guero, bere naturaleçac berac hala eracutsitic çuhaitz en contra, hec sostengu harturic, çutic dagoe-la, bere loa ere eguiten du. Bada Eiefant çaharraren, eta gazteare artea edireiten dê, dif. ferentcia, edireitenda, presuna çaharraren eta gaztearen artean ere, gaztea çalhui, eta manajucor beçain, da çaharra gogor eta çur-run.

§. 3.

BAÎA hunelaco differentiaric ezpaliz ere Bezta çahartceco beguirat egon behar. Ceren çahar arteraiñoco dembora hartan ere, gazte çarenean ere, anhitz ongi eta ontasun eguiten deratçu ceure Jaungoicoac, hazten, mantinenatzen, eta biciric eduquitzen çaitu. Ezliqateque bada arraçoiñ, çuc ere bitarte hartan, ceure demboran, ontasunac errebitzen ditutçunean, esquerrac errenda ciniacion, cerbitça ceneçan lauda, eta ohoraceneçan? Quri Jaincoac bethi eguiten deratçu ongi, cergatic bada çnc ere eztioçu bethi ere eçagurça egunen, eta esquer emanen? Qure alderacotcar frantco da eta liberal Jaincoa, nolatan bada çara çu, hain escas eta herri, ceure gazterasuna, adinic hoberena, sobera etfirc, gaixtoen, hondarra, çahartcea eman nahi baitioçu? Gaiñac, picainac, eta hautu-ac bertceren, hondarrac, eta arbuyoak Jaincoaren. *Non enim tantum minimum in fundo, sed*

184

ÇAHARTCEAN ERE

-manaju appurra dela? Era adin harc berc dem
boran eguiten dituen falten erç erremediatcen
eguitecoric asco içanen duela?

Beraz hunelatan , gazte da nic behar da
Jeaincoa cerbitçatu, penitenciatan emplegatu,
beccatu etaric apartatu,, eta ez guerotic gue-
rora , gaztetik çahartcera , luçatu.

*Cahartcean ere penitenciaric egniten
ezluenaz.*

C A P. XIII.

eg. 13:

 Rraiten du escritura sainduac. *F i.
lius unius anni erat Saul, cùm regnare
cepisset, duobus autem annis regnauit:
super Hierusalem.* Vrthe batetaco
haurra cen Saul , erreguetu cenean , eta bi vr-
thez içan cen erregue Jerusalemeren gaiñean.

Ordea nolatan ahal dateque haur hu-
nela? Ceren segur da vrthe bat baiño guehi
ago çuela Saulec erreguetu cenean , eta hala-
ber bi vrthe baiño guehi ago egon cela bete
erreguetasunean. Eguia da hala da. Ordea
nola hastean baitzen malicia gabe , vrthe ba-
tetaco haurraren pare , eta egoitça hartan, ita-
un baitçuen , bi vrthez gera ez guehi ago:eta
Jaincoaren alderacotçat , ezpaitira contutua
hartea

LABURPENA

Aurreko mendeetako Euskal Literaturak aukera gutxi izan du liburuak irar-kolan ezagutu ohi duen prozesuaz mintzatzeko; eta are gutxiago, idazleek bertara eramandako bertsioen eta ondoko zuzenketen berri emateko. Euskal Literaturako obra klasikoak oro har, eta, honen barnean, XVI-XVII. mendeetako denbora-leizean erdi galduak ditugunak batik bat, inprimatutako aleen bidez baino ezin mintza daitezke eskuarki. Lekukotasun hori, tamalez, inoren referentzia hutsera edo, hoberean, edizioaren ale bakan batenera mugatu ohi da nahi baino gehiagotan. Eta honetan ez da desberdintasunik autore handien eta autore txikien obren artean, arlo horretan, nonbait, gure klasiko gehienak suertatu baitira idor. Guziarekin ere, artikulu honek Euskal Literaturak eman duen idazle funtsezkoenaren obraz baliatu nahi izan du bazterturiak ditugun liburuetan inoiz aurkikuntza bitxirik ere gerta daitekeela erakusteko eta, bidenabar, inprimatu aurrekoez eta bestelakoez ere hitz egiteko. Iza-tez, Axularrek idatzitako *Gero* liburuaren lehen ediziok irlitsi zaizkigun dozena eskas aleren artean, bada bat, Julio Urkixok gordea nahiz eta ez bereziki onetsia, non, besteak beste, gainerakoetan azaltzen ez diren hainbat gauza interesgarri agertzen baitira. "M" plegua edo koadernotxoa da horietako nabarmenena eta garrantzitsuena.

RESUMEN

Si pocas han sido las oportunidades de que la literatura vasca de los siglos precedentes ha gozado para mostrar el proceso que sigue el libro en la imprenta, menor, incluso, ha sido el número de las que ha dispuesto para reflejar la problemática de las versiones aportadas por los escritores y de sus correspondientes correcciones. En este sentido, las obras clásicas de la literatura vasca, y en especial las relegadas en los abismos de los siglos XVI y XVII, apenas si pueden hablar más allá del texto impreso en que vieron la luz. Son testimonios que a menudo se basan en ejemplares únicos y/o incompletos, y, no infrecuentemente, se nutren sólo de referencias ajenas. Y en esto no hay diferencias entre nuestros autores: mayores o menores, los más de nuestros clásicos han resultado baldíos en este aspecto. Con todo, este artículo ha querido valerse de la obra del principal autor de la literatura vasca para demostrar que aún es posible la sorpresa y el descubrimiento precioso y, a su vez, tratar acerca de los trabajos previos a la impresión definitiva de una obra. De hecho, entre la escasa docena de ejemplares que ha llegado a nosotros de la primera edición del *Gero* de Axular hay uno, recogido –pero no especialmente valorado– por Julio de Urquijo, donde aparecen interesantes elementos que no constan en los ejemplares restantes. El pliego o cuadernillo "M" es uno de los más notables e interesantes.

RÉSUMÉ

La littérature basque des siècles passés a eu peu d'opportunités de traiter le processus que les livres subissent aux imprimeries, et beaucoup moins d'opportunités de traiter les versions que les écrivains y amènent et les corrections ultérieures que l'on y fait. Dans le cas des œuvres classiques de la littérature basque et, parmi elles celles qui sont tombées dans les oubliettes des XVI^e et XVII^e siècles, on ne peut, en général, parler que d'exemplaires déjà imprimés. Ce témoignage, malheureusement, plus souvent que l'on ne voudrait, se limite à la simple référence de quelqu'un ou, dans le meilleur des cas, à la référence de quelque exemplaire isolé de l'édition. Et il n'y a pas beaucoup de différence entre les grands auteurs et ceux qui sont plus modestes, car il semble que dans ce sens, le travail de la plupart de nos classiques ait été fait en vain. Malgré tout, dans cet article j'ai voulu me servir de l'œuvre écrite par

l'auteur principal de la littérature basque, pour démontrer que l'on peut aussi faire des découvertes importantes dans les livres que nous avons laissés de côté, je profite aussi de l'occasion pour parler du processus avant d'imprimer et d'autres sujets. En fait, parmi les quelques douze exemplaires qui nous sont parvenus de la première édition de *Gero* de Axular, il y en a un, conservé par Julio de Urquijo, qui n'est pas spécialement apprécié, où il y a pourtant beaucoup de choses intéressantes qui n'apparaissent pas dans d'autres exemplaires. Le cahier ou carnet «M» est l'une des plus remarquables et importantes.

ABSTRACT

Basque literature from past centuries has had few opportunities of dealing with the process which books undergo at the printers and fewer still of looking into the versions taken to printers by writers and the corrections made to them afterwards. In the case of classical works from Basque literature and of these, in general, those which were practically lost in the time abyss of the XVI and XVII centuries, we can, as a rule, speak of little more than copies already printed. Unfortunately, on more occasions than one would wish, such testimony is limited to mere reference by somebody or, in the best of events, to reference in an odd copy from the edition. And in this respect, there would appear to be little difference between great and lesser authors because apparently the work of most of our classics was futile. Nevertheless, in this article, I wished to use the work provided by the main author of Basque literature to demonstrate that it is possible to make precious discoveries in the books we have hidden away and, making use of the occasion, to speak about the process prior to printing and other matters. In fact, of the mere dozen copies known to us of the first edition of Axular's *Gero*, there is one not particularly valued copy, belonging to Julio de Urquijo, which contains many interesting things which fail to appear in the other copies. The booklet "M" is one of the most remarkable and important of these.